



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Seguru ‘Martina’ zela zuk ikusten zenuen programa?”

Miren Gaztañaga | Martina ohia

Antzerkiola Imaginariotik, ETBn antzerkia imajinatzeraz.
Eta etxera buelta atzera, inoiz etxea utzi bazuen.

ARITZ GALARRAGA
Argazkia: Iñigo Azkona

Eskerrik asko elkarrizketa onartzeagatik, Martina... ai, barkatu, Miren...

Lasai, nahi baduzu Martinak egin ahal du elkarrizketa, baina, ni zu banintz, ez nintzateke ausartuko: ez da isiltzen dakien horietakoa. Esan daiteke ni diplomatikoagoa naizela.

Imajinatzen dut askotan nahastu zaituztela, ezta? Izan ere, antza izugarria duzue.

Zergatik diozu? Urre koloreko adats luze eta bular erraldoi hauengatik? Jende askok esan izan digu, bai.

Hontzarekin etorriko zinela pentsatzen nuen, hala ere.

Hontza ni baino askoz ere inteligenteagoa da eta etxean geratu da goxo-goxo.

Hontzak baino, beldur handiagoa ematen dit niri Ander Lipusek.

Urteekin gaingidituko duzu, lasai. Hori bai, bere ondoan egonez gero, kontuz, ze oso kutsakorra da ofizioari dion maitasuna. Nik oraindik ez dut sendatzeko antidotoa aurkitu.

Metafisikoegia zen zuen saioa.

Seguru al zaude Martina zela zuk ikusten zenuen programa? 3 urtetik 95 urte bitarteko ikuslegoa izan dugu eta iritziak denetariakoak, baina ulergaitza zela orain arte ez digu inork esan.

Nola da hori, antzerki independentean hasi eta ETBn bukatzea?

Bukatu baino, joan-etorrian ibili, ezta? Niri horrek ematen dit bizipoza, leku batetik bestera ibiltzeak, batek gauza batzuk ematen dizkizu eta besteak beste batzuk. Eta horrela zure bidea zein den argitzen zoaz poliki-poliki.

Tira, azkenean ETBk bukatu du programarekin. Ez esan gobernu berriak duela errua horretan ere...

Ezin diogu erru guztia gobernu berriari bota. Zaharrak ere bazituen bere altxorrak...

Orain zer, bizimodu prekariora berriz? Esan nahi dut: antzerkira bueltatu zara?

Kar kar kar! Ez naiz antzerkitik inoiz joan, baina, bai, orain *Cola-caoa* baino supermerkatuko marka duen kakao erosten dut.

Antzerkia omen da aktore guztien diziplina mai-teena, baina denek bukatzen duzue telebistan!

Bi eremu desberdin dira eta zergatik ez biak jorratu? Probatu baino lehen zergatik mugatu behar duzu zure burua? Eta behin probatu eta gero, aukera badago behintzat, bakoitzak erabaki dezala momentuan hoberen datorkiona.

Goenkalen paper bat adibidez, Perurenaren amorantearena?

Primeran! Dudarik gabe, erronka litzateke. Eta niri erronka berrien aurrean lanerako gogoa sartzen zait! ■